



ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

Onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2021eko apirilaren 29an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 3.2021 ohiko osoko bilkuraren akta, 2021-03-25koa.
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena berdintasun Informazio Batzordean 2021eko apirilaren 13an emandako diktamena Selma Huxley Barkham bekaren III. Deialdiari buruz.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Hirigintza Informazio Batzordean 2021eko apirilaren 21ean emandako diktamena II.12 H.G. Munazategi sektoreko xehetasun azterketa behin betiko onartzeko (240/2020/P10).
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Hirigintza Informazio Batzordean 2021eko apirilaren 21ean emandako diktamena II.10 H.G. Ugarkalde sektoreko a.400.11 partzelaren xehetasun azterketa behin betiko onartzeko (241/2021/P10).
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Hirigintza Informazio Batzordean 2021eko apirilaren 21ean emandako diktamena Bidebarrieta kalea 30 zenbakiko beheko oineko lokalean Miren Izaskun Bikuña andreak prestatu duen etxebizitza behin-betiko Udal etxebizitza tasatutzat kalifikatzeko.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Ongizate Zerbitzu Informazio Batzordean 2021eko martxoaren emandako diktamena Gizarte Zerbitzuen arloko elkarteei zuzendutako dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak eta berariazko oinarriak eta deialdia eta bere oinarriak onartzea.
7. Hala badagokio, presako gaiak.
8. EH BILDU eta EAJ udal taldeak aurkeztu duen mozioa, espetxe politikak ezartzen dituen urrunketa politikoaren inguruan ETXERATEk aurkeztutakoari buruz.
9. EAJ Mendiko Abeltzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioari buruz.
10. EH BILDU eta EAJ udal taldeak aurkeztu duen mozioa, EAJ-PNV, EH BILDU, PODEMOS, ELA, LAB UGT, CCOO STEE, ESK, Hiru, Etxalde, EHNE, CGT eta CNTren adierazpena buruzkoa.

11. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
12. Martxoaren 26tik Apirilaren 23 bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 283 zenbakitik 411 zenbakira.
13. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udaltzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2021eko apirilaren 26an
Alkateak

Izaro Elorza Arregui

